



Urretxuko udala



## UDALAREN OSOKO BILKURA

### 2013ko UZTAILAREN 18an EGINDAKO APARTEKO BATZARRALDIA

Elkartutakoak

#### Alkatea

Oihane Zabaleta Mujika, andrea (Bildu)

#### Zinegotziak

Jon Altolagirre Askasibar, jauna (Bildu)

Unai Badiola Urrate jauna ( Bildu)

Idoia Ormazabal Agirre, andrea (Bildu.)

Aitor Otegi Epelde, jauna, (Bildu. )

Jorge Andueza Arrizabalaga, jauna ( Bildu

Itziar Agirre Berriotxoa , andrea (E.A.J/ P.N.V) (19:20 horas)

Angel Errazu Garate, jauna (E.A.J/P.N.V.)

Ion Pol Agirre Berriotxoa, jauna (E.A.J/P.N.V.))

Jon Luqui Albisua, jauna (E.A.J./P.N.V.)

Fco. Javier Martin Mateo, jauna (P.S.E.-E.E)

Mª Dolores Segade Blanco, andrea (P.S.E-E.E..)

Luis Angel Tellez Gogorza, jauna (H1!)

#### Idazkaria


María Jose Begiristain Zabalo andrea

Urretxun bi mila eta hamahiruko  
uztailaren hemezortzian.

Arratsaldeko zazpiak eta laurden  
direnean, aldez aurretik deitutako  
ohiko batzarraldia egiteko,  
Udalbatzarra bildu da udaletxeko  
batzar areto nagusian; goian  
agertzen diren udal-bazkideak elkartu  
dira.

En Urretxu a dieciocho de julio de  
dos mil trece.

Siendo las diecinueve horas  
quince minutos se reúne en la Sala  
Capitular del Ayuntamiento el Pleno  
de la Corporación al objeto de  
celebrar sesión extraordinaria para la  
que había sido convocada y a la que  
asistieron los Señores Corporativos  
que arriba se indican.



## Urretxuko udala



Jarraian, eguneko gai-zerrendan sartutako gaiak eztabaidatzeari ekin diote

### 1.- Bildu taldeko zinegotziaren kargu hartzea.-

Joan zen ekainaren 27an Josu Miren Sierra Munduate jaunak Bilduko zinegotzi izateari uko egin ziolarik, Hauteskunde-Batzorde Zentralak Idoia Ormazabal Agirre andrearen egiaztagutuna bidali du, aipatutako koalizioko zerrendan hautagai baita; honek, ekitaldi honetan, zinegotzi kargua hartzeko legezko tramiteak bete ditu.

### 2.- Turismoko kudeaketa lana Uggasari ematea.-

Alkate andreak aditzera eman du gai hau eguneko gai-zerrendan sartu dela, izan ere praktikan jada gauzatzen ari da proposatutako moduan; hortaz, eztabaidan sartu aurretik, batzorde informatiboak gai honi buruzko irizpenik eman ez duenez, AJAko 82.3 artikuluak agindutakoa betetzeko, bozketa egin da; baiezko bota eman dute alkate andreak eta Badiola (Bildu), Altolagirre (Bildu), Ormazabal (Bildu), Otegi (Bildu), Andueza (Bildu), Errazu (EAJ/PNV), Agirre (EAJ/PNV), Luqui (EAJ/PNV), Martín (PSE-EE) eta Segade (PSE-EE) zinegotziek; eta Tellez zinegotzi jauna (H1!) abstenu


Seguidamente se pasó a tratar de los asuntos relacionados en el Orden del Día

### 1.- Toma posesión concejal Bildu

Habiéndose producido la vacante por renuncia a su condición de concejal de Bildu de D. Josu Miren Sierra Munduate el 27 de junio pasado, por la Junta Electoral Central se ha emitido credencial en favor de Dña. Idoia Ormazabal Agirre, candidata de la lista de la mencionada coalición, quien en el presente acto procede al cumplimiento de los trámites legales de toma de posesión del cargo de Concejal.

### 2.- Encomienda de gestión de turismo a Ugasa.-

La Sra. alcaldesa indica que este punto se ha incluido en el orden del día dado que es un asunto que en la práctica ya se viene llevando a cabo de la forma propuesta y por ello previamente al inicio del debate, y no habiendo sido dictaminado este punto por la Comisión Informativa correspondiente, en cumplimiento de lo dispuesto por el art. 82.3 del ROF, con los votos a favor de la Sra. Alcalde y los ediles sr@s Badiola (Bildu), Altolagirre (Bildu), Ormazabal (Bildu), Otegi (Bildu), Andueza (Bildu), Errázuz (PNV), Agirre (PNV), Luqui (PNV), Martín (PSE-EE), y Segade (PSE-EE) y la abstención del Sr. Téllez (H1!), se



## Urretxuko udala

egin da; horrenbestez, gaia gai-zerrendan sartzea berretsi da.

Jarraian, Alkatetzatik aurkeztu den proposamenaren berri eman du alkate andreak, hain zuzen ere Uggasan turismo kudeaketaren enkarguari dagokiona, eta ondoren idatzita datorrena:

UGGASA Urola Garaia  
Mankomunitateak osatutako elkartea  
merkantil anonimoa da, mankomunitate  
horren kide bat Urretxuko Udala izanik.

Aipatutako elkartea merkantilaren helburua, besteak beste, honakoa da:

- o eskualdea sozio-ekonomikoki garatzeko zenbait jardunaldi eta ekintzak, merkataritza eta turismoaren garapenari lotutako jardunaldiak barne direlarik.

Kontuan izanik Udalaren 2013ko Kudeaketa Planean Uggasari turismoaren kudeaketa ematea aurreikusten dela, 22.000 euroko gastuarekin, eta hau 2011-2015 Legegintzaldi-Planean jasotako "turismoaren sustapena" estrategiarengan ondorioa izanik.

Udalatzak 2009ko apirilaren 27an Uggasari turismoaren kudeaketa ematea onartu zuen, honako dotazio ekonomikoa izanik; 51.579 €/urteko.

Epea, hiru urtekoa izan zen, 2009ko ekainaren 1ean hasita.

ratifica por unanimidad su inclusión en el Orden del día.

Seguidamente la Sra. alcaldesa da cuenta de la propuesta que desde alcaldía se presenta en relación a la encomienda de la gestión del turismo en Uggasa, propuesta que se transcribe a continuación:

UGGASA es una sociedad anónima constituida en su integridad por la Mancomunidad Urola Garaia, mancomunidad de la que forma parte el Ayuntamiento de Urretxu.


El objeto social de dicha mercantil es el cumplimiento, entre otros, del siguiente fin:

- o la realización de cometidos y actuaciones orientadas al desarrollo socio-económico de la comarca, lo que conlleva la realización de actividades tales como el desarrollo de comercio y turismo.

Resultando que en el Plan de Gestión municipal 2013 se contiene como actuación la encomienda de gestión del turismo a Uggasa con un gasto de 22.000 €, todo ello dentro de la línea estratégica de fomento del turismo recogida en el Plan de Legislatura 2011-2015.

El Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el 27 de abril de 2009 aprobó la encomienda de gestión del turismo a Uggasa con una dotación económica como compensación a las tareas encomendadas de 51.579 euros/ año.

El plazo por el que se le encomienda la gestión del turismo de Urretxu a



## Urretxuko udala

Uggasak enkomenda hau aurrera eman ahal izateko, Lenbur-i esleitu zion eskualdeko baliabide turistikoen kudeaketa.

Egun, komenigarria ikusten da, turismoa eskualdeko ikuspegitik kudeatzen jarraitza, eta hau horrela izanik Uggasak kudeatzen jarraitza proposatzen da. Honetarako, Uggasako zuzendaria den Salaberria andreak dioenez, Urretxuri dagokion urteko gastua 24.438,50 eurokoa izango litzateke (Lenbur-en esleipen-prezioaren % 26,42).

Kontuan izanik erakunde publikoen aktibitate material, teknikoak edo zerbitzuak beste organo edo erakundeei egiteko mandatua ematea dagoela, organo edo erakundeak hauek administrazio berekoak edo beste administrazioak izan daitezkeelarik.

Honako honen bidez honakoa

### PROPOSATZEN DA:

UGGASAri kudeaketarako mandatua ematea onartzea, Urretxuko baliabide turistikoa kudeatzeko, horretarako jarraituz honako baldintzak:

- a) Kudeaketa-mandatu honek gauzatze lan materiala eta teknikoa dakar berekin, edota zerbitzu laña, baina ez dakar eskumenaren titularitatearen ez horren gauzatzeak berezko dituen elementuen lagapenik.

UGGASA es de tres años, iniciándose el cómputo de los mismo el 1 de junio de 2009.

Uggasa tras licitación convocada al efecto adjudicó a Lenbur las labores de gestión de los recursos turísticos de la comarca.

Actualmente se considera de interés seguir gestionando el turismo con una visión comarcal, por lo que se propone que siga gestionándose a través de Uggasa, habiéndose comunicado por su gerente, Sra. Salaberria, que el gasto anual correspondiente a Urretxu asciende a 24.438,50 € (el 26,42% del precio de adjudicación a Lenbur: 92.500 €)


Considerando que la realización de actividades de tipo material, técnico o de servicios de competencia de las entidades de derecho público podrá ser encomendada a otros órganos o entidades de la misma o de distinta administración.

Por la presente, se realiza la siguiente

### PROPIEDAD.

Encomendar a UGGASA la gestión de los recursos turísticos de Urretxu, con arreglo a las siguientes estipulaciones:

- a) La presente encomienda de gestión implica exclusivamente la realización de carácter material, técnico o de servicios y no supone cesión de la titularidad de la competencia ni de los elementos sustantivos de su



## Urretxuko udala

b) Urretxuko Udala da emandako mandatua gauzatzeko moduaren zuzendaritza eta ikuskaritzaren erantzulea. Ahalmen hori baliatzeko unean, honakoak dagozkio:

- Mandatuaren gai den jarduera materiala jasotzen duten ekintza edo ebaZen juridikoak ematea.
- Zerbitzua eskaintzeko jarraibideak ezartzea.
- Uneoro UGGASAri informazioa eskatzea, emandako mandatu jarduerari dagokionez.

c) Mandatuaren epea: 2013 urtea.

d) Hornidura ekonomikoa: Emandako lanengatiko ordain gisa, Urretxuko Udalak 24.438,50 € emango dizkio UGGASAri:

Urretxuko Udalak UGGASAri transferituko dio kopuru hori, beharrezko fakturak aurkeztu ondoren eta hauek organo mandatu-emailearen onespena jaso eta gero.

e) Mandatua iraungitzea:

- Epeareen bukaeraz.
- Alderdien arteko akordio baten indarrez.
- Administrazio emakida-emaileak bertan behera uzten duelako, UGGASAK

ejercicio.

b) El Ayuntamiento es responsable de la dirección y supervisión del ejercicio de la actividad encomendada. En el ejercicio de dicha facultad le corresponde

- Dictar los correspondientes actos o resoluciones de carácter jurídico en los que integra la actividad material objeto de encomienda.
- Impartir instrucciones para la prestación del servicio.
- Recabar en todo momento información a UGGASA de la encomienda sobre la actividad encomendada.

c) Plazo de la encomienda: Año 2013.

d) Dotación económica. Como compensación a las tareas encomendadas el Ayuntamiento de Urretxu aportará a UGGASA la cantidad de 24.438,50 €.

Esta cantidad se transferirá por el Ayuntamiento de Urretxu a a UGGASA, tras presentación de las oportunas facturas, previa la oportuna aprobación de las mismas por el órgano encomendante

e) Extinción de la encomienda:

- Por agotamiento del plazo de la misma.
- Por mutuo acuerdo de las partes.
- Por revocación de la Administración encomendante



## Urretxuko udala

bere gain hartutako obligazioetan ez-betetze larrien bat gertatuz gero. Bertan behera lagatzeko, administrazio mandatu-emaileak erabaki arrazoitua hartu beharko du, betiere entzuna izateko tramitea eskainiz kudeaketa-mandatua eman zaion administrazioari.

- Kudeaketa-mandatua duen soziitateak uko eginda, administrazio mandatu-emaileak bere gain hartutako obligazioetan ez-betetze larrien bat gertatuz gero.

Zinegotziak hitz egiteko txandari hasiera emanda, Luqui jaunak azaldu du Uggasa eskualdeko sustapen ekonomikoan diharduen soziatea dela, duela 20 urtetik hona horretan ari dena, eta EAJ/PNV alderditik baliozko tresnatzat hartzen dela; beraz, proposamenaren aldeko btoa emango dute.

Martin jaunak azaldu du PSE-EE ados dagoela aurkeztutako proposamenarekin, baina uste dute aldez aurretik Bozeramaile Batzordean eztabaidatu behar zela gai hau.

Bere txanda iritsi zaionean, Tellez jaunak argitu du berak ez duela ezer Uggasa merkantilaren aurka; aditzera eman du gai hau batzordean, Tokiko Gobernu Batzarrean edo Bozeramaileen Batzordean aztertu


ante cualquier incumplimiento grave de las obligaciones asumidas por UGGASA. La revocación se realizará mediante resolución motivada de la Administración encomendante otorgando previamente trámite de audiencia a la Administración gestora de la encomienda.

- Por renuncia de la Sociedad gestora de la encomienda ante cualquier incumplimiento grave de las obligaciones asumidas por parte de la Administración encomendante.

Iniciado el turno de intervenciones el Sr. Luqui expone que Uggasa es una sociedad que viene funcionando desde hace 20 años en la promoción económica de la comarca, y desde el PNV se ve esta órgano como un instrumento válido, es por ello que votarán a favor de la encomienda propuesta.

El Sr. Martín expone que el PSE-EE está de acuerdo con la propuesta presentada, pero entiende que se debiera haber convocado Junta de Portavoces para debatir previamente el asunto.

Llegado su turno el Sr. Téllez, aclarando previamente no tener nada en contra de la mercantil Uggasa, expone que este asunto se debiera haber tratado en Comisión, Junta de Gobierno o Junta de Portavoces



## Urretxuko udala

behar zela, izan ere lehenengo zehaztu behar da nola kudeatzen den eta zertarako; aurkeztu den proposamenean agertzen den moduan, enkargua egiten duen organoa, hau da, Urretxuko Udala, agindutako jardueraren zuzendaritzaren eta gainbegiratzearren arduraduna da. Horregatik, abstentu egingo da bozketa.

Era berean, hurrengoetarako, enkargua berritu edo luzatu baino lehen, gaia sakon aztertza eskatu du.


Alkate andreak aditzera eman du bai Martin jaunak bai Tellez jaunak arrazoi dutela gaia aldez aurretik batzordean aztertu behar zela esan dutenean; baina, lehen esan bezela, turismoaren kudeaketa Uggasa egiten ari da, 2009an Udalbatzak 3 urteko eperako eman baitzion horretarako agindua. Esan du gainera, Luqui jaunak azaldu duen moduan, Uggasa aspalditik lanean ari den erakunde dela, eta horregatik kontuan izan beharrekoa da bere eskarmenutu zabala, baina kontuan izan behar da baita ere, zehazki turismoari dagokionez, turismoko eskualdeko mahai bat dagoela, eta horren lanaren berri ematen dela Uggasako Administrazio Kontseiluan.

Nolanahi ere, bere ekarpenak hartuko dira kontuan, eta alde horretatik proposatu du gai hau udal aurrekontua eta kudeaketa plana prestatzerakoan aztertza, eta

dado que en primer lugar hay que establecer cómo y para qué se gestiona, puesto que una encomienda, tal y como se recoge en la propuesta presentada, el órgano que encomienda, esto es el Ayuntamiento de Urretxu, es el responsable de la dirección y supervisión del ejercicio de la actividad encomendada. Es por todo ello que se abstendrá en la votación.

Asimismo solicita que en sucesivas ocasiones, previamente a renovar o a ampliar la encomienda, se trate y analice exhaustivamente.

La Sra. alcaldesa expone que tanto el Sr. Martín como el Sr. Téllez tienen su razón respecto al tratamiento del asunto previamente en Comisión, pero, tal y como ya ha dicho, la gestión del turismo en la práctica ya viene efectuándose por Uggasa dado que así se encomendó por este Ayuntamiento Pleno en el año 2009 y por un plazo de 3 años. Añade que, tal y como ha expuesto el Sr. Luqui Uggasa es un organismo que viene desarrollando su labor desde hace largo tiempo, y es por ello que hay que tener en cuenta su dilatada experiencia, pero también hay que tener en cuenta que, concretamente en lo que a turismo se refiere, hay una mesa comarcal de turismo de cuya labor se da cuenta en el Consejo de Administración de Uggasa. No obstante se tendrán en cuenta sus aportaciones, por lo que plantea que se trate el asunto en el período de elaboración del



## Urretxuko udala

Urretxutik sortzen diren proposamenak turismoko mahaira eramatea, bidezko iruditzen zaiolarik baita ere kudeatutakoa Udalera itzultzeko planteamendua.

Eztabaida amaiturik, kontuhartzaileak horren alde egindako txostenak kontuan izanik, eta gaia botoetara eramanda, aldeko botoa eman dute alkate andreak eta Badiola (Bildu), Altolagirre (Bildu), Ormazabal (Bildu), Otegi (Bildu), Andueza (Bildu), Errazu (EAJ/PNV), Agirre (EAJ/PNV), Luqui (EAJ/PNV), Martín (PSE-EE) eta Segade (PSE-EE) zinegotziak, eta abstentzioa Tellez jaunak (H1!); horrenbestez, honako hau erabaki da:

**Lehenengo.-** Urretxun turismoaren kudeaketa egiteko enkargua Uggasari ematea onartzea, beti ere erabaki honetan azaldu eta alkatezaren proposamenean jasotako baldintzetan.

**Bigarren.-** Alkate andreati ahalmena ematea, hala bádgokio, behar diren agiri guztiak sina ditzan.

### 3.- Funtzioen ordezkaritzari buruzko alkatearen ebaizpena:

#### Berri ematea

Uztailaren 12an Alkatezak emandako Ebazpenaren berri emana, testua ondoren idatzita dagoena delarik:

*Tokiko Araubidearen Oinarriei  
buruzko apirilaren 2ko 7/1985  
Legearen 23.3 artikuluan, eta Toki  
Erakundeetako Antolamendua,*

presupuesto municipal y del plan de gestión, y las propuestas que surjan desde Urretxu se trasladan a la mesa de turismo, entendiendo también lógico su planteamiento de retorno de lo gestionado hacia el Ayuntamiento.

Finalizado el debate, considerando el informe favorable emitido por Intervención, y sometido el asunto a votación, con los votos a favor de la Sra. Alcalde y los ediles sr@s Badiola (Bildu), Altolagirre (Bildu), Ormazabal (Bildu), Otegi (Bildu), Andueza (Bildu), Errazu (PNV), Agirre (PNV), Luqui (PNV), Martín (PSE-EE), y Segade (PSE-EE) y la abstención del Sr. Téllez (H1!), se acuerda:

**Primero.-** Aprobar la encomienda de la gestión del turismo en Urretxu, a Uggasa en las condiciones de la propuesta de alcaldía transcrita en el exponendo de este acuerdo.

**Segundo.-** Facultar a la Sra. Alcalde para la firma, en su caso, de cuantos documentos sean precisos al efecto

### 3.- Resolución de Alcaldía delegación funciones: dación cuenta.

Se da cuenta de la Resolución de Alcaldía dictada el 12 de julio pasado cuyo texto se transcribe a continuación:

*Conforme al art. 23.3 de la ley 7/1985, de 2 de abril reguladora de las Bases de Régimen Local, y 47.1 y 2 del R.D. 2568/1986, de 28 de*



## Urretxuko udala

Jardunbidea eta Araubide Juridikoa onartzen dituen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 47.1 eta 2 artikuluetan xedatutakoaren arabera, Alkateordeei dagokie, euren izendapenaren hurrenkeran, Alkateak dituen betebehar guztietañ ordezkatzea hura ez dagoenean. Ordezkaren hau ezin da aurrera eraman ez badago espreski eginda.

Hori guztia dela eta, eta aipatu azaroaren 28ko 2568/1986 E.Dekretuaren 44 artikuluaren arabera, honako honen bidez,

### EBAZTEN DUT:

**Lehena.-** Uztailaren 22tik uztailaren 27ra bitartean, biak barne, alkatearen funtzioak Bigarren Alkateordea den Jon Altolagirre Askasibar jaunaren gain uztea.

**Bigarrena.-** Uztailaren 28tik abuztuaren 5era bitartean, biak barne, alkatearen funtzioak Hirugarren Alkateordea den Aitor Otegi Epelde jaunaren gain uztea.

**Hirugarrena.-** Abuztuaren 6tik abuztuaren 17ra bitartean, biak barne, alkatearen funtzioak Lehenengo Alkateordea den Unai Badiola Askasibar jaunaren gain uztea.

noviembre por el que se aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, corresponde a los Tenientes de Alcalde sustituir en la totalidad de sus funciones y por el orden de su nombramiento al Alcalde en los casos de ausencia, entre otros, no pudiendo ser éstas asumidas sin delegación expresa.


En consecuencia, y visto lo dispuesto en el art. 44 del citado R.D.2568/1986, de 28 de noviembre, por el presente,

### RESUELVO:

**Primero.-** Delegar las funciones de Alcaldía en el Segundo Teniente de Alcalde, D. Jon Altolagirre Askasibar durante mi ausencia en las fechas del 22 de julio al 27 de julio ambos inclusive.

**Segundo.-** Delegar las funciones de Alcaldía en el Tercer Teniente de Alcalde, D. Aitor Otegi Epelde durante mi ausencia en las fechas del 28 de julio al 5 de agosto ambos inclusive.

**Tercero.-** Delegar las funciones de Alcaldía en el Primer Teniente de Alcalde, D. Unai Badiola Urrate durante mi ausencia en las fechas del 6 de agosto al 17 de agosto ambos inclusive.



## Urretxuko udala

**Laugarrena.- Ebazpēn honen berri Udalbatzari ematea, lehenengo bileran.**

Udalbatza jakinean geratu da.

### 4.- Udalhitz 2008-2010 akordioaren indarraldia eusteko ituna: Ebazpena berresteia.

Udalhitz hitzarmenaren lan-baldintzak eusteari buruz 2013ko uztailaren 3an Alkatetzak emandako Ebazpenaren berri eman da, hori berresteko.

Testua hitzez hitz ondoren idatzita dator:

Lan merkatuaren erreformarako premiazko neurriei buruzko uztailaren 6ko 3/2012 Legea indarrean sartu izanak aldarazi egin du Langileen Estatutuko hitzarmen kolektiboetako ultrajardueraren idazketa erregulatzalea. Horrela, hitzarmen kolektiboaren indarraldia, behin salatuta eta itundutako iraupena amaituta, hitzarmenean bertan ezarritako terminoetan gauzatuko dela esan ohi den arren, finkatu dena hauxe da: hitzarmen kolektiboa salatu eta urtebetera oraindik ez badá hitzarmen berrik adostu, lehenengoak indarraldia galduko duela eta, halakorik balego, dagokion esparru handiagoko hitzarmen kolektiboa aplikatuko dela, bestelako itunik adosten ez baldin bada. Aipatutako legezko araua indarrean sartzean dagoeneko salatu diren hitzarmenen kasuan, eta Laugarren Xedapen Iragankorrean xedatutakoarekin bat etorri, urtebeteko epe hori 2013ko uztailaren 8an amaituko da.

Kontuan hartuta, Udal honen borondat ea

**Cuarto.- Dar cuenta de esta Resolución al Pleno en la primera sesión que éste celebre.**


La Corporación queda enterada.

### 4.- Pacto para el mantenimiento de vigencia del Udalhitz 2008-2010 al personal laboral: ratificación resolución.

Se da cuenta , para su ratificación, de la Resolución de Alcaldía dictada el 3 de julio de 2013, relativa al mantenimiento de las condiciones de las condiciones laborales del convenio Udalhitz, cuyo texto se transcribe literalmente a continuación:

*La entrada en vigor de la Ley 3/2012, de 6 de julio, de medidas urgentes para la reforma del mercado laboral, ha modificado la redacción reguladora de la ultraactividad de los convenios colectivos contenida en el Estatuto de los Trabajadores. Así, si bien se sigue afirmando que la vigencia de un convenio colectivo, una vez denunciado y concluida la duración pactada, se producirá en los términos que se hubiesen establecido en el propio convenio, se establece que, transcurrido un año desde la denuncia del convenio colectivo sin que se hubiera acordado uno nuevo, aquel perderá su vigencia y se aplicará, si lo hubiere, el convenio colectivo del ámbito superior que corresponda, salvo que medie pacto en contrario. En el caso de los convenios ya denunciados a la entrada en vigor de la citada norma legal, y de acuerdo con lo dispuesto en la Disposición Transitoria Cuarta de la misma, dicho plazo de un año expira el próximo 8 de julio de 2013.*

Resultando que constituye voluntad de este



## Urretxuko udala



dela, Euskal Erakunde Publikoetako Langileen Lan-baldintzak Arautzen dituen 2008-2010 urteetarako Akordioko xedapenak oso-osorik aplikatu ahal izatea eragindako udal langile guztiei, legez aplikagarria den orotan; eta hori, datozen urteotarako beste akordio erregulatzaile bat lortu bitartean.

Hori guztia horrela, aplikatu beharreko legerian, eta Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1 h) artikuluak ematen dizkidan ahalmenen arabera, hona hemen

### EBAZPENA:

**Lehenengo.-** Itun bat formalizatzea langileen ordezkariekin. Euskal Erakunde Publikoetako Langileen Lan-baldintzak arautzen dituen 2008-2010 urteetarako akordioko xedapenak mantentzeko eta idazketa berria ematea aipatutako akordioko 4.4 artikuluari, horrela, aurreko 4.4 artikuluaren ordez, honela geratuko da idatzita:

- 4.4 art.: "Langileen Estatutuko 86.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta lan merkatuaren erreformarako premiazko neurriei buruzko uztailaren 6ko 3/2012 Legearen idazketak sortu duen aldaketaren ostean, adostu da, Akordio berria lortzen ez den bitartean, oraingoak bere indarraldiari eutsiko diola, aplikagarriak diren aurreikuspen guztietan".

**Bigarren.-** Interesatuei jakinaztea erabaki hau.

Zinegotzien txandari hasiera emanda, Luqui jaunak aditzera eman du EAJ/PNV taldearen iritziz ebazpen hau gatazkarak gabeko lan

ayuntamiento el mantenimiento en su integridad al conjunto de trabajadores municipales afectados las disposiciones del Acuerdo Regulador de las condiciones de trabajo del personal laboral de las Instituciones Públicas Vascas para los años 2008-2010 en todo aquello que legalmente resulte de aplicación, en tanto se alcance un nuevo acuerdo regulador para los años venideros.

De conformidad con lo preceptuado en la legislación aplicable y en virtud de las competencias que me confiere el art. 21.1 h) de la Ley reguladora de las Bases de Régimen Local, por la presente,


### RESUELVO:

**Primerº.-** la firma de un pacto con la representación de los trabajadores municipales para el mantenimiento de la vigencia del acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal laboral de las instituciones públicas vascas para los años 2008-2010 y para dar nueva redacción al art. 4.4 del citado acuerdo, que quede redactado en los siguientes términos:

Art. 4.4 "De conformidad con lo establecido en el art. 86.3 del Estatuto de los Trabajadores, tras la modificación introducida por la redacción de la Ley 3/2012, de 6 de julio, de medidas urgentes para la reforma del mercado laboral, se pacta que hasta que no se llegue a un nuevo Acuerdo el presente mantendrá su vigencia en todas aquellas previsiones que sean de aplicación".

**Segundo.-** Notificar el presente acuerdo a los interesados.

Iniciado el turno de intervenciones, el Sr. Luqui expone que su grupo, PNV, entiende la presente solución como un instrumento para la continuidad de



## Urretxuko udala



harremanei jarraipena emateko tresna bat da, eta beraz, aldeko botoa emango dute.

19:25 direnean Agirre andrea etorri da bilkurara.

Martin jaunak azaldu du PSE-EE taldea beti izango dela langileen alde hauek hitzarmenetan egiten dituzten eskaeretan; hortaz, aldeko botoa emango dute.

Eztabaida amaiturik, erabaki honetan idatzita geratu den Alkatezaren Ebazpena berretsi da aho batez.

Eta besterik gabe, amaiera eman zaio batzarrari, arratsaldeko zortziak hogei gutxi direnean. Horren guztiaren akta jaso da, eta bildutako guztiak sinatu dute, fede-emaile naizen honekin batera.

unas relaciones laborales sin conflicto, cuestión por la que van a votar a favor.

Siendo las 19:25 se incorpora a la sesión la Sra. Agirre.

El Sr. Martín expone que el PSE-EE siempre apoyará a los trabajadores en las reivindicaciones que por sus convenios realicen, cuestión por la que votarán a favor.

Finalizado el debate, por unanimidad se ratifica la Resolución de Alcaldía transcrita en el exponiendo del presente acuerdo.

Y sin otro particular, procede a levantar la sesión a las diecinueve horas cuarenta minutos, de todo lo cual se extiende la presente Acta que firman conmigo todos los asistentes, y de lo que doy fe.